



Develop Film Market Topaketa

- **Urtarrilaren 29an ospatuko da Bilbao Berrikuntza Faktoria (Uribitarte 6, Bilbao).**
- **Ekimena irekia eta doakoa da.**

Develop Film Market Euskal Herriko ikus-entzunezko eta zinemagintzako profesionalei zuzendutako topaketa da. Elbio Aparisi Nielsen eta Jara Ayúcar-en zuzendaritzapean sortutako ekimena. Zinemagintza independente, telebista eta transmedia industriaren arteko kohesio, elkar-laguntzak, esperientziak eta lan-sare indartsuak sortzeko asmoarekin jaioa. Enpresa, kolektibo, zein erakunde ezberdinen arteko eztabaida eta dinamiken bidez, sektoreko ezagutzak sustatzeko lekua da hau.

Urtarrilaren 29an ospatuko da, doakoa eta irekia den, topaketa honen hirugarren edizioa. Abiapuntu nagusizat, harreman profesionalen garapena izango du. Hori dela eta, **Speed Meeting Develop** networking-ean parte hartzeko 16 pertsonentzako deialdia egin da. Bertan, ikus-entzunezko profil ezberdinetako profesionalak elkartuko dira etorkizunerako aliantzak sortzeko asmoz. Speed Meeting Bilbao (*Laura San Martin* eta *Garazi Serrano* dira formatu honen sortzaileak) ekimena egongo da honen atzean, Develop-en Pitch Room gela kudeatzen. Aldi berean, auditorioan, Euskal Herrian filmatutako "Escisión" low cost luzemetraia ikusgai egongo da. Proiektzioa amaitutakoan, diru-laguntzarik gabeko filmazioen inguruan luze hitz egiteko aukera izango dute mahai-ingurura hurbiltzen direnek. Izan ere, **Luis Vil**, filmaren zuzendaria,

bertan egongo da bereganatutako bizipen eta jakintza guztiak, auditorioarekin banatzeko prest.

JARDUERA EGITARUA

SQUARE (Beheko solairua)

18.30ak_ Irekiera eta Develop-en aurkezpena

19/21ak_ Luis Vil-en “Escisión” filmaren proiektzioa eta ondorengo hitzaldia, eztabaida + baliabide gutxirekin luzemetraiak ekoizteko gida.

DOCK (Beheko solairua)

19/21ak_Bigarren IB (ikus-entzunezko bilera) non sektoreko profesional, erakunde eta kolektibo ezberdinak elkartuko dira, puntu komunak ezartzeko eta indartzeko.

PITCH ROOM (3. solairua)

19/21ak_Ikus-entzunezko sektoreko 16 profesional, haien proiektu eta esperientziak elkar-banatuko dituzte, afinitate eta elkarlan bila.

Speed Meeting Bilbaok kudeatuko du networking saioa, bere 7 minutu kolaboratzaileak maitemintzeko formatuarekin. Giro ezin hobea sortuko da Dj Mat et moi -Merienda Club- esker

21:00-etan DOCK aretoan parte-hartzaile guztiak elkartuko dira **Networking party + Lunch** batekin jardunaldiari amaiera emateko.

Helbidea: Bilbao Berrikuntza Faktoria erakina: Uribitarte 6, Bilbo. PK:48001.

Zure Speed Meeting Develop-en parte-hartzea ziurtatzeko, idatzi iezaguzu info@speedmeeting.es helbidera.